

1. VENDING

NEGOZIOAREN DEFINIZIOA

Zenbait produkturen (kafe, edari, aperitibo, prentsa, etab.) salmenta makina automatikoen bidez.

MERKATU-DATUAK

Vending edo saltzeko makinaren sektoreak goranzko joera du azken urteotan. 2001. urtean vending-aren merkatuak 1.808 milioi euro fakturatu zituen gutxi gorabehera, baina geldotze-sintomak ageri dira. Gaur egun 400.000 inguru makina dago jarrita, 100 biztanleko bat, urrutiko Japoniako eratioetik, han baitago 23 biztanleko makina bat.

Sektore hau “robodendetara” ari da jotzen, hots, denda edo kafetegi automatikoetara: lokal txikiak, pertsonarik gabeak, non erosketa edo kontsumizio guztiak saltzeko makinaren bidez egiten baitira. Oraindik urtebete ez da Eroskik horrelako lokal bat ireki zuela Iruñean, eta bertan bere supermerkatu-sarean saltzen dituen produktuetako 150 artikulu saltzen ditu, pixa-oihalak edo olioak, adibidez.

ENPRESA-PLANA

Marketin-plana

□ *Produktuak*

Freskagarriak, tabakoa eta kafea dira eskatuena, baina snack-en kontsumoa ere nabarmen hazi da. Pixkanaka, saltzeko makina modernoak ari dira sortzen eta hauek produktu espezifikokoak saltzen dituzte (prentsa, jaki prestatuak, bideo-jokoak, bideo-filmak, etab.).

□ *Sustapena*

Makina marka ospetsuekin pertsonalizatzeak salmenta %20raino gehitu dezake. Normalean makinetan irudi freskagarriak erabiltzen dira edari hotzentzat, marka-irudiak edarientzat edo beste giro batzuk orotarazteko irudiak tabakoentzat. Makinak toki estrategikoetan jarri ahal izateko zuzeneko harremanak izatea komeni da, eta elkarrizketa pertsonala eta irabazi-marjinen negoziazioa oso ongi prestatzea.

Plan Operatiboa

□ *Lokala*

Behar beste toki izan behar da salgaiak gordetzeko eta makinaren mantentze-lanak egiteko (gutxienez 150 m²). Ahal bada, industrialdeetako pabiloietan kokatzea komeni da.

□ *Ekipamendua*

Inbertsio nagusia makina automatikoak erosteko egin behar da. Hauen kostua sinpleenetan 3.000 euro ingurukoa izan daiteke, eta 12.000 baino gehiagokoa konplexuenetan.

Giza baliabideen plana

Langile-kopurua makina automatikoen kopuruaren arabera izango da. Gutxienez pertsona bat behar da saltzailearen eta diru-biltzailearen lanak egiteko, eta teknikari bat makinen mantentze-lanak egiteko.

Inbertsio-plana

18.000 eurotik aurrera, jarduera hasteko nahi den makina-kopuruaren arabera. Garrantzitsua da sarrera eta gastuen aurreikuspena egitea jarduera honetan hasi aurretik.

Garapen-en elkartutako agentzietan autoenplegurako orientabide- eta laguntza-zerbitzuak eskaintzen dira.

<http://www.garapen.net>

Administrazio-izapideak

EAE: Administrazio-prozedura hauek jarduera bat abian jartzeko sektoreka dauden laguntzak eta egin beharreko izapideak azaltzen dituzte.

<http://www.ej-gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?Cmd=listarAyudas&lenguaje=es>
<http://www.ej-gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?lenguaje=es&EstadoVigencia=1>

Enpresa bat sortzeko informazio osoa

<http://www.creaciondempresas.com/>

Laguntzak, diru-laguntzak eta bekak

Espainia. Herri Administrazioen Ministerioa.

Estatuko Administrazio Orokorrek eta Autonomia Erkidegoek deitutako laguntza, diru-laguntza, beka eta sariei buruzko kontsulta lagundua, baita Europako Batasunak eta Toki Administrazioak deituriko batzuei buruzkoa ere.

IDEIAK ETA ARRAKASTAREN GAKOAK

□ *Bezeroak, inbertitu aurretik*

Makinak erosi aurretik, merkatuko aukera ikertzea komeni da. Ea ezagun edo lagunik dugun makina horiek kokaleku estrategikoetan jartzeko. Dena den,

harreman eta elkarrizketa pertsonal asko egin beharko dira hasierako vending-guneen sarea osatzeko.

□ *Makinaren kokalekua aztertzea*

Funtsezkoa da makinak jartzeko leku ona aukeratzea. Jende asko ibiltzen den toki estrategikoak aukeratu behar dira (ikastetxeak, ospitaleak, enpresa handiak, eraikin publikoak, gasolina-zerbitzuguneak, etab.).

□ *Makinaren mantentzea*

Garrantzitsua da makinak beti egoera onean eta prest izatea. Aurrerapen teknologiko etengabeak, tele-mantentze, tele-ordainketa eta tele-kudeaketako sistemen bidez irtenbide berriak eskaintzen ditu zenbait arazotarako: produktukopuruaren kontrola, matxura-ohartarazpena, diru-biltzea, ordainketa-sistema, etab.

HELBIDE INTERESGARRIAK

ANEDA. Banatzaile Automatikoko Enpresen Elkarte Nazionala
Ssamaca 6 local 28033-Madril. Tfnoa. 91-3185386 Fax 91-3815459

Feriak/Biltzarrak:

<http://www.eurovending.ifema.es/>

Aldizkariak:

JocPrivat <http://www.andemar.es/jocprivat/default.htm>

Vending operadorea: <http://www.operadordevending.net/>

Enpresa-direktorioak:

Saltzeko makinaren frankizien gida:

http://www.empleofacil.com/empleo/franquicias/AO/index_1.html

Atariak / Web-guneak:

<http://www.todo vending.com/index.php>

<http://www.canalempresa.com/buscador/index.asp?cat=20&sec=86>

<http://www.ventinvending.com/>